

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Tradizio herrikoiak berreskuratzeko jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 496153

Alkatearen 2020ko otsailaren 13ko Ebazpena, tradizio herrikoiak berreskuratzeko jarduerak egiteko dirulaguntzen 2019-2020ko deialdia egiten duena, lehiaketa bidez.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai (www.infosubvenciones.es).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza honen xede diren jardueretako edozein egiten duten udalerriko elkarteak eta kontzejua izango dira onuradunak.

Bigarrena. Xedea

Deialdiaren xedea da udalerriko elkartei eta kontzejuei laguntzen dieten dirulaguntzen kontzesioa arautzea, ahazten ari diren herri tradizioak (hala nola "Santa Agata", "Lardero osteguna", "Jaiotza biziduna", "Olentzero eta Mari Domingi", "Erre Pui Erre" eta "Erregeen desfilea") berreskuratzeko jarduerak antola ditzaten eta susta dezaten tradizio horietan guztietan emakumeen era gizonen partaidetza orekatua.

Gastu hauek diruz lagundu ahalko dira:

Santa Agata, Lardero osteguna eta Erre Pui Erre: joaten direnei txokolatea, salda eta gaztainak eskaintzeko osagaiak.

Olentzero eta Mari Domingi eta Erregeen desfilea: jantzien alokairua, joaten direnei txokolatea, salda, gaztainak eta karameluak eskaintzeko osagaiak.

Jaiotza biziduna: jantzietan egindako gastuak (oihalak eskuratzea, jantziak egitea, alokatzea), dekoratuak eraikitze materialak eta antzetzeko behar diren elementuak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2019ko martxoaren 25eko bilkuran onetsi ziren eta maiatzaren 22ko 59/2019 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Aurreikusitako gastuaren ehuneko 90erainoko dirulaguntzak eman ahalko dira, muga hauekin:

Santa Agata, Lardero Osteguna, Erre Pui Erre: 50,00 euro.

Olentzero eta Mari Domingi eta Erregeen desfilea: 300,00 euro.

Jaiotza biziduna: 1.000,00 euro.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak egingo dira oinarrien I. eranskinean ageri den ereduan, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epemuga 2020ko azaroaren 30a izango da.

Seigarrena. Eskarari erantsi beharreko agiriak

Egin nahi den jardueraren proiektua edo memoria, sinatuta.

Jarduerarako aurreikusitako aurrekontua.

Lortu ahal diren beste dirulaguntza batzuen zerrenda.

Dirulaguntza jarduera egin ostean eta elkarreak edo kontzejuak emandako dirulaguntza ordaintzeko eskaria aurkeztu eta gero ordainduko da.

Ordaintzeko eskaera udalak onartutako ereduan egingo da (II. eranskina) eta harekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Egindako jardueraren memoria, arduradunak izenpetuta. Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira: jarduera, emandako dirulaguntza, egin den eguna eta parte hartzaile eta onuradunen kopurua, desberdinak badira.

Lortutako beste dirulaguntza batzuen ebazpena.

Egindako jardueraren argazkiak edo grabazioak.

Jardueran egindako gastuen eta diru sarreraren zerrenda, arduradunak izenpetuta.

Onuradunaren izenean jaulkitako jatorrizko fakturak, egindako gastuenak; emandako dirulaguntzaren zenbateko bera edo handiagoa eduki behar dute eta argi eta garbi jaso beharko dute zein kontzepturenak diren, bai eta kasuan kasuko BEZa eta haien ordainagiriak ere.

Dura, 2020ko otsailaren 13a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE